



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Futbol Federazioa

## **9.ZIRKULARRA**

2018-19 Denboraldia

### **ERRENDIMENDUAN HASTEKO LEHIAKETA**

#### **OHOREZKO INFANTILAK**

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Errendimenduzko Ohorezko Infantil lehiaketa antolatzen du. Bertan parte hartuko duten taldeak, aldez aurretik gonbidatuak izango dira Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren foru Aginduren bitartez.

#### **1) KLUB PARTAIDEAK**

**I TALDEA:** Touring K.E.; Beti Ona C.D.; Real Unión SAD; Vasconia C.D.; Mariño C.D.; Pasaia K.E.; Trintxerpe C.D. eta Lengokoak K.E.

**II TALDEA:** Kostkas K.E.; Antiguoko K.E.; Añorga K.K.E.; Zarautz K.E., Martutene K.E.; S.A.N.S.E; Internacional C.D. eta Orioko F.T

**III TALDEA:** Danena K.E.; Real Sociead SAD; Beasain S.D.; Tolosa C.F.; Lazkao K.E.; Ostadar S.K.T.; Euskalduna S.D. eta Ordizia K.E.

**IV TALDEA:** Lagun Onak C.D.; Arrasate C.D.; Aretxabaleta K.E. UDA; Eibar S.A.D.; Anaitasuna C.D.; Elgoibar C.D.; Amaiak Bat K.E. eta Bergara K.E.,

#### **2) LEHIAKETA SISTEMA**

**1.FASEA:** 8ko lau taldetan banaturik (4x8=32 ekipo) eta bi itzulietara (14 jardunaldi).

#### **2.FASEA:**

**A) Txapeldunen Fasea:** Talde bakoitzeko **lehen lau sailkatuek** jokatuko dute (4x4=16), bi itzulietara eta zortzi ekipotako bi taldetan banaturik (14 jardunaldi). Mailaren txapelduna erabakitzeko talde bakoitzeko lehenek partida bakarra eta zelai neutralean finala jokatuko dute. Bigarren sailkatuek ere jokatuko dute, Errendimenduzko Infantil Handi Txapelketan Gipuzkoa ordezkatuko duten hiru taldeak erabakitzeko

## **B) Gipuzkoa Kopa:**

Geratzen diren 16 ekipoek, zortziko bi taldetan banaturik kopa hau jokatuko dute 2 itzulietara.

Talde bakoitzeko lehen sailkatuak finala jokatuko du, partidu bakarrera eta zelai neutralean.

### **3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

70 minutu eta 35 minutuko bi zati. 10 minutuko atsedenaldia egongo da eta **zazpi aldaketa**. Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalaria guztiak partidan ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Zelai jokora sartzen den azken jokalaria ezingo du 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partiduaren bigarren zatiaren 15. minutua baino beranduago.

Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da.

### **4) DEIALDIA**

Batzar Nagusian hartutako akordioa jarraituz, taldea osatzen duten jokalarien %80a deialdian eta partidan bertan egon beharko da. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.

### **5) JOKALARIAK**

2005 eta 2006 urteetan jaiotako jokalaria.

### **6) LIZENTZIAK**

Eskola Kiroleko Programaren barnean dauden lehiaketak direnez, partaideak dagokien eskolarteko lizentzia edukiko dute, hauek bi erakundeen logotipoa izango dituzte eta Federazioan bertan bideratuko dira lehiaketa hasi baino lehen.

Talde bakoitzak, gehienez **20 lizentzia** izango ditu.

### **7) DIZIPLINA ARAUA**

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuarekin bat etorriaz, Instituzio Foralak eginkizunak eskuordetzean ematearen ondorioz diziiplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziiplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, araua juridikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsoa aurkez daiteke.

## **8) XEDAPEN OROKORRAK**

### **Izen-ematea**

Izen-ematea Federazioko **web orrialdearen barne ataletik** egingo da.

### **Estaldura-Zerbitzua**

Nahiz eta txapelketa honen izaera eskolartekoa izan, Espainiako Futbolarien Elkarkidegoari afiliatzea da.

### **Azterketa Medikoa**

Lizentziak bideratu baino lehen futboleant aritzeko jokalariairentz gaitasuna ziurtatu beharko da.

## **9) 2019-2020 DENBORALDIRAKO TALDEEN OSAKETA**

2019-2020 denboraldirako Ohorezko Infantil Maila 32 ekipo osatuko dute. Hauek 2018-19 denboraldiko Errendimenduzko Infantil Txikiko Txapelduen Faseko 24 sailkatuak ; Real Sociedad S.A.D. taldea eta Parte-Hartze Infantil Txikiko Txapelduen Faseko 7 hoberenak izango dira.

## **10) KADETE MAILAN JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA**

Onartuko da, ezinbesteko egoeratan, bigarren urteko jokalariairentz parte hartzea kadete mailan, ondorengo izapidek aldeztu aurretik betetzen badira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera arazoitua, proposatutako jokalariairentz zerrendarekin.
- Eskolarteko infantilen, kadete mailan parte hartzeko Foru Instituziotik baimena izatea.
- Dagokion lizentzia federatiboa tramitatzea.

## **11) PARTE HARTZE BIKOITZ HONEN ARAUZKO ONDORIOAK**

10. puntuant aipatzen diren baldintzak betetzen badira, azken urteko infantil jokalariairentz segidako goi mailan (kadetea) parte hartu dezakete, **baina talde infantileant bidegabeki jokalariairentz-zerrendant sartu izan dela kontsideratuko da**, aste buruan bi partiduetant parte hartuko balu nahiz eta egun ezberdinetant izan.

**Donostia, 2018ko abuztua.**  
**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA**

**-Lehendakaria-**  
**Juan Luis Larrea Sarobe**